# Xedapen Orokorrak

**JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**5060**

AGINDUA, 2008ko abuztuaren 1ekoa, Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, agindu hau aldatzen duena: Agindua, 2004ko martxoaren 2koa, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bere 201. artikuluan dioenez, herri-administrazioetako fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko, ebazpen orokor bat eman beharko da, eta ebazpen hori Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

Ildo beretik, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4,1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatu nahi izanez gero, fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak agindu bat eman beharko du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, indarrean dagoen legeriak eskatutako aipamen guztiak adierazita. Halaber, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikuluan Datuak Babesteko Erregistroa araututa dago, hor inskribatu behar baitira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko fitxategiak.

Aurreko aginduak betetze aldera, Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Agindua onartu zen, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak arautzen zituena. Aipatutako sailetako datu pertsonalen fitxategiak eguneratzen zuen 2008ko urtarrilaren 15eko Aginduak aldatu egin zuen agindu hori.

Herritarrei laguntzeko zerbitzu berri bat, Zuzenean, sortu da, eta datu-base bat izango du oinarri, Eusko Jaurlaritzaren eta herritarren arteko administrazio-harremanak eraginkortasunez kudeatzeko asmoz. Hori dela eta, datu pertsonalen fitxategi berri bat sortu beharra dago, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan.

# Disposiciones Generales

**VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**5060**

ORDEN de 1 de agosto de 2008, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se modifica la Orden de 2 de marzo de 2004, por la que se regulan los ficheros de datos de carácter personal de la Vicepresidencia del Gobierno, del Departamento de Hacienda y Administración Pública y de los Organismos Autónomos adscritos al mismo.

La Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, establece en su artículo 20.1, que la creación, modificación o supresión de ficheros de las Administraciones públicas sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o diario oficial correspondiente.

En el mismo sentido, el artículo 4.1 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, señala que la creación, modificación y supresión de ficheros de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará por orden de la persona titular del departamento al que esté adscrito el fichero, la cual deberá contener todas las menciones exigidas por la legislación en vigor y será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Asimismo, la Ley 2/2004, de 25 de febrero, regula en su artículo 18 el Registro de Protección de Datos en el cual se deben inscribir, entre otros, los ficheros de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

Con el objeto de cumplir los mandatos anteriores, se aprobó la Orden de 2 de marzo de 2004, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regulaban los Ficheros de Datos de Carácter Personal de la Vicepresidencia del Gobierno, del Departamento de Hacienda y Administración Pública y los Organismos Autónomos adscritos al mismo. Esta Orden fue modificada por la Orden de 15 de enero de 2008, que actualizó los ficheros de datos de carácter personal de los Departamentos citados.

Debido a que se ha creado un nuevo servicio de atención a la ciudadanía, Zuzenean, que se apoyará en una base de datos para gestionar eficazmente las relaciones administrativas entre el Gobierno Vasco y la ciudadanía, es necesario crear un nuevo fichero de datos de carácter personal en la Vicepresidencia del Gobierno.

Agindu honen bidez aldatu egiten da 2004ko martxoaren 2ko Agindua, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako datu pertsonalen fitxategiak arautzen zituena.

Aurreko guztiagatik,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Fitxategia sortzea.

Agindu honen eranskinean ezarritakoa betez, datu pertsonalen fitxategi bat eratzen da, Jaurlaritzaren Lehendariordetzako Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzan.

***2. artikulua.***– Herri-administrazioen arteko datu-trukaketa.

Agindu honetan araututako fitxategian jasotako datu pertsonalak Administrazioko beste organo batzuei jakinarazteko, indarrean dagoen legeria bete behar da.

***3. artikulua.***– Fitxategiak kudeatzeko segurtasun-neurriak.

Jaurlaritzaren Lehendariordetzako Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzak behar beste neurri hartuko ditu agindu honen eranskinean aipatutako datu pertsonalen fitxategiaren erabilera bermatzeko, hain zuzen ere, eratu zeneko helburuei eusten diela bermatzeko eta datu pertsonalak babesteko, horrela datu horiek aldatu, galdu, tratatu edo baimenik gabe eskura ez daitezen, eta indarrean dagoen legerian jasotako bermeak, obligazioak eta eskubideak gauzatu daitezen.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko dizkio datu pertsonalak dituzten fitxategiak, agindu honen eranskinean jasota daudenak, inskribatu ditzan.

***Bigarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abuztuaren 1a.

Jaurlaritzaren lehendakariorde eta
Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Por la presente Orden se modifica la Orden de 2 de marzo de 2004, por la que se regulaban los Ficheros de Datos de Carácter Personal de la Vicepresidencia del Gobierno.

Por lo expuesto,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Creación de fichero.

Se crea el fichero de datos de carácter personal, recogido en el anexo a esta Orden, de la Dirección de Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía de la Vicepresidencia del Gobierno.

***Artículo 2.***– Comunicación de datos entre Administraciones públicas.

Los datos de carácter personal recogidos en el fichero regulado en esta Orden únicamente serán comunicados a otros órganos de la Administración, de conformidad con la legislación vigente.

***Artículo 3.***– Medidas de seguridad en la gestión de los ficheros.

La Dirección Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía de la Vicepresidencia del Gobierno adoptará las medidas necesarias para garantizar el uso del fichero de datos personales que figura en el anexo a esta Orden, para las finalidades para las que es creado y la seguridad de los datos de carácter personal, y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, así como las conducentes a hacer efectivas las garantías, obligaciones y derechos reconocidos en la legislación vigente.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública procederá a la notificación a la Agencia Vasca de Protección de Datos de los ficheros de datos de carácter personal contenidos en el anexo a la presente Orden para su inscripción.

***Segunda.***– La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de agosto de 2008.

La Vicepresidenta del Gobierno y
Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

# I. ERANSKINA

## DATU PERTSONALEN FITXATEGIA, EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDARIORDETZAKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKORAKO ETA HERRITARREI ARRETA EMATEKO ZUZENDARITZAREN ZUZENEAN ZERBITZUARENA

Fitxategiaren izena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herritarrei Arreta emateko Zerbitzua, Zuzenean.

Aurreikusitako helburua eta erabilerak.– Herritarrei zerbitzu emateko datu-basea, Eusko Jaurlaritzarena, leihatila bakarraren moduan dihardueña; bide hauek eskaintzen ditu: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta era diferitua (internet, ohiko posta, posta elektronikoa, faxa…).

Datuen jabe diren pertsonak edo kolektiboak.– Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuarekin, Zuzenean-ekin, zerikusia duten pertsonak.

Datuen jatorria.– Herri-administrazioa, interesatua edo bere legezko ordezkaria.

Datuak biltzeko prozedura.– Bide hauek erabiliz: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta era diferitua (internet, ohiko posta, posta elektronikoa…).

Fitxategiaren oinarrizko egitura eta dituen datu pertsonal moten deskribapena.

– Identifikazio-datuak: NAN/IFZ, helbidea, izendeiturak, telefonoak, posta elektronikoa, ahotsa.

– Beste datu batzuk: jaioteguna, sexua, harremanetarako hizkuntza, familia-harremanak (aita, ama, semea, alaba).

Datuak uztea: Administrazioko beste organo batzuek uztea, indarrean dagoen legeria betez.

Fitxategiaren arduraduna: Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza.

Datuetara jo, datuak aldatu eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko modua ematen duen zerbitzua: Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Administrazio Elektronikorako eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza. Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

Segurtasun-neurriei doakienez eska daitekeen maila: Oinarrizko maila.

# ANEXO I

## FICHERO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL DEL SERVICIO ZUZENEAN DE LA DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA Y ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA DE LA VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO VASCO

Denominación del fichero.– Servicio de Atención a la ciudadanía –Zuzenean- de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Finalidad y usos previstos.– Base de datos de soporte para la prestación del servicio de atención a la ciudadanía del Gobierno Vasco, a modo de ventanilla única por los canales presencial, telefónico o diferido (internet, correo postal, electrónico, fax…).

Personas o colectivos origen de los datos.– Personas relacionadas con el Servicio de Atención a la Ciudadanía –Zuzenean-.

Procedencia de los datos.– Administración Pública, la propia persona interesada o su representante legal.

Procedimiento de recogida de los datos.– A través de los canales: presencial, telefónico o diferido (internet, correo postal, electrónico…).

Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos en el mismo.

– Datos identificativos: DNI/NIF, dirección, nombre y apellidos, teléfonos, correo electrónico, voz.

– Otros datos: fecha de nacimiento, sexo, idioma de contacto, relaciones familiares (padre, madre, hijo, hija).

Cesiones de datos: cesión a otros órganos de la Administración, de conformidad con la legislación vigente.

Responsable del fichero: Dirección Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía de la Vicepresidencia del Gobierno.

Servicio donde se pueden ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición: Dirección Administración Electrónica y Atención a la Ciudadanía de la Vicepresidencia del Gobierno, c/ Donostia–San Sebastián, n.º 1, 01010, Vitoria–Gasteiz (Álava).

Nivel exigible respecto a las medidas de seguridad: Nivel básico.